



Ihesi

GONTZAL AGOTE

Euskal Herria ezagutuz: **Artaxoa (Nafarroa)**

Historiaren talaia

Nafarroako gotorlekurik ederrenetakoa du Artaxoak; ia kilometro bateko harresiak, bederatzi dorre eta eliza gotiko ikusgarria, inguruan dauden mahastiak eta lur zabalak patxadaz ikusteko toki ezin aproposagoa: Zerkoa. Baina ez da hori herriak duen arreta-gune bakarra: Historiaurretik karlisten garaietara eramanen gaituen bidaia ezin interesgarriagoa egiten ahal dugu.

ARTAXOARA AILEGATUTA ezinbestean gora zuzendu behar da begirada. Muinoaren gainean, inguru osoaren zaindaria, herria famatu egin duen gotorlekua, Zerkoa, ikusten da nonahitik begiratuta. Harresi dotorea eta elizaren dorre

garaia, bide guztiek horra eramane gaituzte.

Herriko karrika nagusietan—Eugenio Mendioroz, San Pedro eta Kale Nagusian—aspaldiko etxe zaharrak eta eraikin berriak ikusten dira, nahas-mahasean. Etxe zahar

askok arkua dute etxeko atarian, eta horietako batzuetan zenbaki eta hizki batzuk agertzen dira markatuta: gerrate karlistetan erabiltzen ziren marka horiek, eta etxe bakoitzean zaldiak gordetzeko zenbat ukuilu zegoen adierazten zuten.

Ezkerrean, Zerkoaren zati bat, eliza eta guzti. Eskuinean, herri-guneko karrika bat, historia usainez betea.





Zerkoaren barruko eremuaren irudi panoramikoa. Erdian, San Saturnino eliza.

Karlismoarekin harreman estua izan du beti herriak, zoritxarrez ezaguna da “Artaxoako 40ak” izeneko erreketetako taldea izan zela 1936an Donostian sartzen lehena. Dena den, herritar aurrerakoi asko ere izan dira, eta horren aztarnak gure garaietara iritsi dira: Corralizas Elkartea sortu zuten 1865. urtean, Elizari kendutako ondasunei beste erabilera bat emateko. Elkartek gaur arte iraun du, nolabaiteko udal paralelo gisa, herriarentzat gauza asko eginez.

Baina, aspaldiko kontuetan galdu aurretik, segi dezagun herritik gora, Zerkoraino. Horretarako, herriko beste elizatik pasa behar dugu, San Pedrotik, harresietatik kanpo bizi zirenek erabiltzen zutena.

Remahuako atetik pasatuta —garai batean hiru ate zituen gotorlekuak, gaur bi baizik ez— Zerkora ailegatuko gara. XI. mendean hasi

ziren gotorlekua eraikitzen, eta 1109. urtean amaitu. Harresiak, berriz, XIII. mendekoak dira. Garai batean hamalau dorre ziren, gaur egun bederatzi baino ez daude zutik. Baina ez da bakarrik harresia, ezta dorreak ere. Gotorlekuaren erdi-erdian XIII. mendeko San Saturnino eliza gotikoa dago, portiko, arrosa-leiho eta ezkila —alderantziz jotzen duten bakarrak omen dira— ikusgarriak dituena.

Azken urteotan Nafarroako Gobernuak berritze lanei ekin die. Hori dela-eta gaur egun ez da posible elizaren barnealdea bisitatzea. Gauzak ongi, aurtengo udaberrirako bukatu nahi dituzte eraberritze lanak.

Zerkotik behera

Lainorik gabeko egunetan, Zerkotik Artaxoa osoa eta Nafarroako Erdialdearen lautada zabala ikusten dira. Talaia ezin hobea da, iraganean

defentsarako, gaur egun paisaiarekin gozatzeko. Harresien kanpoko aldera ere jotzen ahal dugu, inguratu eta hainbat lekutatik egiaztatu gotorlekuaren dotorezia.

Hortik behera, 300 bat metrora, beste eraikin aipagarri bat ikusten da. Zerkotik ateratzen den errepide batetik ailegatu gara Jerusalemgo Amaren basilika handiraino. Ermitan izen bereko Amabirjina dago, nonbait artaxoar batek Gurutzadetatik ekarria. Fraidetxea, baina, ia hutsik dago, bi fraide baino ez dira bizi bertan.

Basilikaren ondo-ondoan, herriko hilerria. Bertara sartuta, arretaz begiratuta, izen ezagun bat aurkituko dugu: Victor Erice. Baina ez dugu inor behar baino lehenago hil nahi, ez: zinemagile ezagunaren aita da. Artaxoarrak zituen gurasoak, hor daude aita-ama, bata bestearen ondoan lurperatuta. Noizean behin agertzen omen da Erice Artaxoako hilerria.

Bilatu arren, ez dugu aurkituko herriko semerik ospetsuenaren hilobia. Jose Maria Jimeno Jurio ez dago hilerrian lurperatuta. Baina herrikideek kale bat eskaini diote, Artaxoako inguru berrian dagoena. Ikerlariak lan itzela egin zuen Artaxoaren eta Nafarroa osoaren euskal izaera Historian arakatzen, eta bere herriari oso lotuta egon zen beti.

Herritik kanpo ere bada zer ikusi. Basilikatik pista bihurria abiatzen da; Artaxoako dolmenetaraino doan bidea da. Ongi markatutako lau bat kilometro daude, Portillo de Eneriz delakora ailegatu arte. Ederki konterbatutako dolmena dago bertan, eta pixka bat harago, mendian sartuta, beste bat, Minako Dolmena. ■

golem LA MOREA 12_areto
golem BAIONA 06_areto
golem YAMAGUCHI 05_areto
golem LOS LLANOS 03_areto
948 222 333
EROSI TELEFONUZ ZURE SARRIENAK

golem

goi-mailako zinea!

www.golem.es

EROSI ORDENAGAILUZ ZURE SARRIENAK